



2009KO URRIAREN 14KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bederatziko urriaren hamalauan, arratsaldeko seietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi eta.

Iñaki Saldaña Herrero zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztzen da 2009ko irailaren 10ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2009ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 11 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, EHUN ETA HIRUROGEITA LAU MILA ETA BERROGEITA BAT EURO ETA BI ZENTIMO (164.041,02 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 09-011-005 zbk.dun esped.: Zerbitzua ematen hastea, astelehenetik ostiralera egunero ordu terdi. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15 izango da.
- 127 zbk.dun esped.: zerbitzuaren ordu kopurua handitzea. Hemendik aurrera emango zaion zerbitzua honako hau izango da: astelehenetik ostiralera, egunero, goizez bi ordu eta astelehen, asteazken eta ostiraletan arratsalde egunean ordu terdi eskeiniz. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %3 izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 08-01-003 zbk.dun esped.: alokairuagatik jasotzen duen diru laguntza etetea, bizilekuz aldatu delako.

...///...

...///...

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Mintzalagun Proiektuaren barruan eta 2008ko irailetik abendura arteko jardunagatik, Goierriko Euskal Eskolari LAU MILA HIRUEHUN ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI EURO ETA BI ZENTIMO (4.378,02 €) tako dirulaguntza emateko Kultura eta euskara batzordetik egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, proposamena onartzea erabakitzen du.

V.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK .-

- Lazkao Antzar Pilota Kirol Elkartek San Mioletako eskolaume eta helduen esku pelota txapelketako antolaketan izandako gastuei aurre egiteko egindako dirulaguntza eskaeraren aurrean, eta Kirola eta Gazteria Batzordearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, hiruehun (250 €) euroko dirulaguntza ematea erabakitzen du.

- Jose Bolinagak, Txindoki Atletismo taldearen izenean "Josetxo Imazen oroimenezko IX. Lasterketa"ren antolaketan izandako gastuei aurre egiteko egindako dirulaguntza eskaeraren aurrean, eta Kirola eta Gazteria Batzordearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, zazpiehun eta berrogeita hamar (700 €) euroko dirulaguntza ematea erabakitzen du.

VI.- BENEDITARREN ARTXIBATEGIAREN ERAIKUNTZAREN 6. OBRA EGIAZTAGIRIA ETA ABUZTUKO OSASUN ETA SEGURTASUN KOORDINATZAILEAREN FAKTURARI DAGOKION DIRULAGUNTZA ONARTZEA.-

Lazkaoko Aita Beneditarren egoitzan eraikitzen ari den Euskal Dokumentaziorako Agiritegia gordeko duen eraikinaren eraikuntza lanen seigarren obra-egiaztagiria, 76.131,59 €koa eta lanen osasun eta segurtasunaren koordinazioaren 2009ko abuztuari dagokion eta 406 eurotakoa den faktura ikusi ondoren, obra egiaztagiri eta faktura hauei udal arkitekto teknikoak bere oniritzia eman diela kontutan izanda eta agiritegi honen eraikuntzarako Aita Beneditarrek eta Lazkaoko Udalaren artean izanpetuta dagoen hitzarmenaren baitan, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Lazkaoko Aita Beneditarrei, obra-egiaztagiri eta fakturaren guztizko zenbatekoaren %17,15ko dirulaguntza, hau da, HAMAHIRU MILA EHUN ETA HOGEITA SEI EURO eta HOGEI ZENTIMO (13.126,20 €) ematea erabakitzen du.

VII.- LARRIALDIETARAKO DIRULAGUNTZAREN ITZULKETA ESPEDIENTEA.-

Tokiko Udal Batzar honek, 2009ko uztailaren 15ean egindako batzarraldian, Jesus Mitogo Alo jaunari emandako larrialdietarako dirulaguntzaren itzulketa espedientea hastea erabaki zuen.

Erabaki hori Jesus Mitogo Alo jaunari jakinarazi zitzaion eta hamabost eguneko epea eman zitzaion alegazioak aurkeztu edo egotzi zeritzon dokumentuak aurkez zitzaion.

...///...



...///...

Alegazioak aurkezteko hamabost egunetako epe horren barruan Jesus Mitogo Alo jaunak idatzi bat aurkeztu du eta idatzi horretan esaten du engainu bat jasan duela kontratuan, errua tarteko beste norbaiti botatzen diolarik eta ezjakintasuna argudiatuz.

Guzti honen aurrean, berak izenpetu duen kontratuaren beste aldea zein den jakitea eta pertsona honi gaitasuna agertzea, bere ardura dela kontsideratuz, Tokiko Gobernu Batzarrek, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, zera erabakitzen du:

1.- Jesus Mitogo Alog Jaunak, pasaporte zenbakia 1882/07 duenak, aurkeztutako alegazioa ez onartzea.

2.- Jesus Mitogo Alog Jaunari, pasaporte zenbakia 1882/07 duena, larrialdietarako laguntza kontzeptuan, aurtengo maiatza eta ekainari zegozkion logela baten errentamenturako udal honek emandako hirurehun eta hogeita hamar euroren (330 €) itzulketa, dirulaguntzaren eskakizuna egiterakoan aukerztutako dokumentazioa faltsutzeagatik. Berandutza interesen kontzeptuan ordaindu beharreko zenbatekoa sei euro eta berrogeita lau zentimo (6,44 €) da.

2.- Akordio hau interesatuari jakinaraziko zaio Dirubilketa Arautegiak ezarri moduan, ordainketa dagokion epean eta moduan egin dezan errekerituz.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko sei terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



